

Oihane Lopez Lasa

A maila • **Aipamena**

Testigua ondoren datorrenari pasatzeko mila modu omen daude... argi suzia haren esku artean uztea, bidean aske joan dadin zure esku heldua bere sorbaldatik kentzea edo... hark noizbait irakurriko dituenaren esperoan lau lerrotan lehengo hizki gerora esaldi eta azkenik olerki edo ipuin izan diren horiek paper zuritan uztea...

Gogokoen dudan modua da hori, ni neu ere idazten hasi berri nintzen hartan, irakurri baintuen helduagoak ziren haien lerroak eta nolabait nire baitan hartu nuen, neurri batean, hitzek euregan utzi zuten esentzia. Aurten niri dagokit beharbada argi suzia behingoz hurrengoei pasatzea, idatzita eta idazteke dauden hitzak nolabait lotzeko nahiagatik bederen...

Hortaz, besterik gabe, sari hau testigua honaino ekartzen lagundu didaten aita eta amari, zein argia inoiz itzali ez zedin suzia zaindu duten aitona eta amamari eskaini nahi nieke, eurak baitira daramadan esentziaren jabe... Oihane Lopez Lasa naiz eta hemezortzi urte ditut.



200 JOULE

Argia dut gidari. Hotz bezain epel sumatzen dudan argi batek narama norabide ezezagun batean aurrera. Ez naiz beldur. Amaren magala izan zitekeenak kulunkatzen nau...Emeki, goxo. Ez dut mugimendua gelditzerik nahi...Ez dut hotzik, berorik ere ez dudan bezala. Ez dago minik, plazera besterik...

Labanda usaina dario inguruari.

Nigana datorrenirudi bati so geratu naiz une batez. Lausotasuna galtzen doa lehenik orban, gerora irudi eta orain arima ezagun bilakatu denizatea. Amamaren usaina nabari dut nigan, han ez oso urrun bere irudia ikusten dudan bitartean. Hainbestetan ume aurpegia laztandu didan esku berberak beragana gerturatu nadin keinu egiten dit behin eta berriz... "Zatoz, geratu nirekin..."

"Gera zaitez gurekin, polita!" Sua bailitzan zerbaitek erretzen dit bular aldea, min dut bihotz alboan. Ez hotz ez bero izatetik erraiak erretzen dizkidan min hotza sentitzera igaro naiz...Eta kolpe bat...Eta txinparta... "Gera zaitez gurekin, polita!" "Ekarri ezazu adrenalina, anpoila bat, azkar". Galdu dut argia, eraman du argia nonbait zainetan sumatzen dudan zer edo zer horrek. Zainetatik gora doa. Min dut bularrean "200 Joule, atzera denak!". Argia itzaltzen ari da. "Zatoz amamarekin, laztana" "Deskarga" Jada ez dut argirik ikusten...

Argiak itsutzen nau. Dena da argia. Oharkabeen itxita izan ditudan begiak ireki zaizkit nahigabe, tupustean. Argiak itsutzen nau. Dena da argia. Urrun edo hurbil ditudan jakiterik ez badut ere, ahotsen antzeko soinuak entzuten ditut inguruan. Arnasestuka, ia ezinean jabeen ahoetatik ateratzen diren ahotsak dirudite, borroka egin osteko hitz soinuak.... Nonbait nirea ere gerlari izan da beste horien artean eta, beharbada, ahoan daramadan tutua kenduko balidate ere, hark ez luke ateratzeko kemen izpirik ere izango.

Bularra sutan, zainak hotz.... "Amamaaa..."

"Gurea da... ZI Ura pasako dugu, mantendu sueroa era honetan eta oxigenoa 4 litrotan.... Animooo"

Hain azkar ireki zitzaizkidan begiek itxita diraute orain. Ez dut ezer ikusten, argirik ere ez.

Ama hemen dagoela badakit, nire ondoan, makurtuta ziurrenik. Inoiz ez zaio nire gainean dagoela adieraztea gustatu, beti nireen parean ezarri izan ditu begiak aurrez aurre jartzean... Eta orain ere hala egongo da bera, itxita ditudan begien parean, maila berean geratzeko desioaz makurtuta. Badakit ama hemen dagoela. Badakit ondo nagoen galdetu didala. Baietz egingo diot buruaz jada hain barneratuta dudan keinu berberaz, hainbestetan izan duen adorea gal ez dezan, eta adorearen gabezia horrek gehiago beldurtzera eraman ez nazan neu ere.

Amak eskua du aitarenaren artean, hori ere badakit. Aita ez da burua erraz makurtzen den horietakoa, baina bere eskua beti dago amarenaren artean. Aitak ez du sekula emaztearen eskua estaliko; aitzitik, bertan sartu eta harekin lotuko da goxo bezain irmo. Berari ere buruaz gora eta beheara egingo diot, goibeldu ez dadin bederen.

Labanda usaina guztiz aienatu du lore berrien gehiegizko lurrinak. Noizbait galdu zuten euren esentzia larrosek eta inoiz ez dute berreskuratuko. Hilerri usaina darie landare horiei, hil ostean letania artean hilarria apaintzeko presaka erosten diren loreen usaina. Bi hankek joan nahi ez duzun leku batera zaramatzatenean egiten duten soinu erritmikoa entzun dezaket hor nonbait. Badator.

"Mikel, eskerrak etorri zaren, hau da hau ezbeharra"

"Lanera joan behar zuela eta lasai ohean geratzeko esan dit ba, gaur goizean, azkar asko atera da etxetik"

"Kotxea guztiz atera omen da bihurgunetik, eta begira nola duen aurpegia berak. Begian sekulako ubeldua dauka.... Eta begiraiozu bere ezpainari!"

Hotzaren ikara eta ikararen hotza sentitu dut nigan. Bera, beti ni baino gorago, beti nire gainetik oherantz gerturatu da. Inoiz ez da nire parera makurtuko. Muxu eman dit libre dudak masailan. Dar-dar egin dut bortizki, baina nire baitan. Barrurantz egin dut dardara, ia kanpotik hauteman ezin daitekeen moduan. Jada joeratzat dudak moduan...

Nola jantzita zegoen ere buruan argi dut oraindik eta ziur nago pentsatzen jarriko banintz, egun hartan izan genuen elkarrizketaren hitz guztiak gogoratuko nituzkeela. Nola zu ausart betiereko izan zinen nigana hurbiltzen lehena eta nola esan zizuten lagunak bazela nik baino gorputz ederragoa zuen neskari han. Lehen aldiz geratu ginenean loreak ekarri zenizkidan, baita bigarrenean ere. 12 larrosa astero astero zetazko paperean bildutako 12 larrosa.

Gurea zen oraina eta mundua une hartan, gurea guregana korrika bizian zetorren etorkizuna ere. Egun izartuak eta gau eguzkitsuak bata bestearekin txandakatuz etorri eta joanen ziren orduan. Dena gurea zen eta gu ginen dena, ez zen besterik.

Maite zintudan maite gogo biziz, zuk ere maite ninduzun irrika berez.

Maite zintudan maite gogo biziz eta zuk ere maite ninduzula esaten zenuen maitasun hitzen artean jipoiak sartzen zindoazen heinean. Maite zintudan maite gogo biziz, zurea nintzen. Zuretzat nintzen. Hori baitzen zure hitzetan maitatzea: uko egin eta errenditzea.

Antza errenditu nintzen behin, ohituratzat hartuaz ukabilek nire azala ukitzean eragiten zuten soinu kolpatua. Malkotan margotu nuen aurpegia ubelduak estaltzeko esperoan, ohitzean minak ere min egingo ez zuen itxaropen apalarekin.

Baina, mina min da beti, ohiturek ez dute sekula ubeldura bat errotuko eta begiak itzaltzen badira ere, malkoak isuriko dituzte maite behar zintuen hark jotzen zaituenean, gorputzak ezin uler baitezake nola desioa piztu dion hark eragin diezaiokeen izurik handiena, nola bihotza azkartzen zion modu berean geldiarazten dion zainetako odola izate berberak.

Ispiluaz bestalde begien aurrean dudan emakume delako horrek izua piztu du nigan. Egon ez dagoen maitasun baten biktima da, inposatzaileak beragan ezartzen duen beldurraren biktima, halaberharrez jada haren zati izanik menperatzen duen koldarkeriaren biktima. Hori ez da, hori ez naiz ni. Maite zaitut, edo maite zintudan beharbada; izan ere, jada ez dago zugatik sentitzen dudana argi azal lezakeenik...

Hiria lo dago oraindik, atzo gauean lo zegoen bezalaxe. Urpetzen zaituen amorrua itotzeko erabiltzen dituzun kolpe horiek ez zituen, beraz, inork aditu. Nik baxu egin nuen oihu badaezpada, nire malko eta oihu itoak maindire artean, zure alboan ezkutatzeko nahiaz. Oihuak beti gordetzen ditut hantxe, zugandik gertu ni gabe ezer ez zarela diozulako beharbada. Baina ba al naiz ezer zure alboan? Baliteke, bihotz hautsi soil xume bat besterik ez izatea, pusketa hautsi bakoitzarekin maitatzen zaituen bihotz soil.

Ubelduenpean bizi den hau, tristura zein poza mingainpean nabaritzeko gai ez den hau ez dut ezagun jadanik. Baina are ezezagunago suertatzen zait behinola maitatuko ninduela zin egin zidan hura, heriotzak banatzen gintuen arte nire eskutik bidean joateko promes egin zuen hura...

Batu behar gintuzten sokak nonbait nire lepoan aurkitu dute estutze puntu bat eta hartaz baliatuta ia itotzeraino egin diozu zuk zeuk tira esku artean promesen egun hartatik daramazun soka horren beste aldeari. Eta nik, errugabetasun guztiaz nire sokatik tira egin orde zuzana gerturatu nahi ninduzula pentsatze hutsak itsututa utzi dizut besterik gabe ia nire arnasa zurekin eraman dezazun tiraka.

Euria ari du, atzoko lez... 100 kilometro orduko. Zugandik eta zugatik ihes egitera naraman errepide estu batean gogoan darabilkit hitz segida bat "Bizi ahal izateko, bizi behar da" Telefonoak jo du. Eskua luzatu dut errepide bustian begirada mantendu nahian. Alboratu dut burua kontatu dezakedan une motzenez....

Aurrez aurre daukat, ia gainean

Badakit, orain badakit zergatik nagoen hemen. Badakit zergatik ezin ditudan begiak ireki. Ihes egin nahi nuen, noraezearen baitan aldendu bederen. Lauza horien gainetik saltoka eta doinu gozoak kantatuz aldentzen zen zapata gorridun neskatala hark nora zihoan jakin gabe ere aurrera egiten zuen bezala. Eta hark bezala adore, bihotz eta adimen ezarekin bidea egin ostean aztiari faltan zuen guztia eskatu. Eman ziezadan hark etsaiak noizbait kendutako adimena, bete nintzan adorez eta batu zitzen nire hautsitako bihotz zati guztiak etxera guzti horiekin nire zapatatxo kolpe batez bueltan nendin.

Ez nuen baina lauza horidun biderik topatu ez eta desioak betearazten zituen aztirik ere. Soilik bihurgune baten ondoren zegoen horma bat. Nolabait zurrin, handi eta gogor suertatzen den horma hori bera izan zen azti delako horrek etxera bueltatu beharrean ihes egin nezan ematen zidan bidea...

Loreen gehiegizko usaina datorkit berriro ere, nirea ez den hatsabehar baino gertuago sumatzen hasi naiz. Bera da. "Maitea senda zaitez laster, horrela biok joango gara berriro etxera. Printzesa bat baitzina zainduko zaitut, ikusiko duzu zein gustura" Muxu eman dit. Higuinez begiak estutu ditut bere ukitzea ez sentitzearren.

Labanda usaina dario inguruari.

Agur, ama, agur, aita, zuek uzteak min egiten dit. Ez ezazue bada nigatik negar tanta bakanik ere isuri, aske izate horren grinak hartu baitu orain arte giltzapean, goibel biziraun duen arima hau. Ez izan beldurrik, trantze honetan izan nezakeen bidelagunik ederrenak baitit eskutik heltzen...Zoriontsu naiz.

"Arantxa, geratu gurekin" "Gelditu egin da!!!!" 200 Joule, atzera denak!" "1,2,3,4,5..." "Bi anpoiaandrenalina, bikarbonatoa..." "Ez zaitetz joan" " 200 Joule, atzera denak!"

Piiiiiiiii

Maite nintzala soilik nahi nuen-